

Aurrekontu

parte hartzaileak

2021

BALIOESPENAK



Esku artean duzuen dokumentu honetan jaso dira Zuiako herritarrek 2021eko udal aurrekontuan txertatzeko proposamenen balorazioak jasotzen dira. Balioespenak udaleko gobernu-taldeak egin ditu.

	Erreg. Zbkia.	NORK?	ZER?	Balioespena	Ebazpena eta zenbatekoa
1.	262	NDC	Herrian dauden pintadak garbitzea: Palatuko fatxada, Markinarako zubia eta etxebizitzak edo zoruak, markesinak. Herri erdian kartelak kentzea.	Ekintza hori aurrekontuko partida arrunt batean jasota dago, eta garbiketa udal-elementu eta eraikinetara mugatzen da. Jada garbitu dira elementu batzuk eta ahaleginak egingo dira garbi mantentzen.	Badago partida batean.
2.	262	NDC	Palatuko sarreran dauden bidezulo batzuk konpondu edo Palatu kaletik Markinara doan zubian lurretik irteten diren burdinak kendu.	Ekintza aurrekontuaren partida arrunt batean dago jasota. Berrikusi eta konpondu egingo dira.	Badago partida batean.
3.	262	NDC	Hondakin guztien edukiontziak prestatzea, gutxienez hiru hondakin erabilienak, papera, plastikoa eta organikoa, bilketa-gune bakoitzean.	Hondakinak biltzeko eskumena zaborren partzuergoari dagokio. Hala ere, edukiontzi guztiak gune guztietan jartzeak asko zailduko luke bilketa, eta hiri-paisaia gehiegi zailduko luke.	Ez dagokio.
4.	262	NDC	Hesia konpontzea Palatu kaleko plazaren aurrean, administrazio-batzarraren etxearen ondoan, zauriak eragin baititzake.	Hesiaren zati bat udalarena da eta beste zati bat pribatua. Zati hori berritu egingo da, eta partikularri bere jabetza konpontzeko eskatuko zaio.	Badago partida batean.
5.	262	NDC	Bidegorriak, bazterbideak edo errepidearekiko ibilbide paraleloak jartzea, pertsonen segurtasun handiagoa emateko.	Udalerriko errepideak Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak dira, eta horiek konfiguratzea eta eraikitzea Arabako Errepideen Plan Integralean (AEPI) jasota dago. Udalak ildo horretako ekimen bat izan zuen bere garaian, baina ezin izan zen gauzatu, foru-erakundearen onespina izan ez zuelako.	Ez dagokio.
6.	262	NDC	Murgiako hainbat kaletako argiztapena eskasa da, intentsitate txikiko LED argiak eta farola baxuak izanik.	Argiztapena mantentzea eta hobetzea ohiko aurrekontuan aurreikusten da. Zalantzarik izanez gero, argiteriaren intentsitatea neurtzen da eta, beharrezkoa bada, hobetu egiten da.	Badago partida batean.
7.	268	16247655H	Altzariak eta tresnak uzteko espazio itxiak prestatzea	Horrelako espazioak Arabako Foru Aldundiari dagozkio. Udal-kudeaketarako gune irigarri batean baten bat jartzeko aukera eskatuko zaio erakunde horri. Ezezkoa emanez gero, udalaren	8.000 euro



	Erreg. Zbkia.	NORK?	ZER?	Balioespena	Ebazpena eta zenbatekoa
				ekimenez egitea bideragarria den aztertuko litzateke.	
8.	289	72825890R	Montzitzorrotz deritzon gunean dauden gerra zibileko aztarnen berreskuratzea.	Ekimen honen lehenengo fasea izango da aurten Eugenio Murgia azterlanaren helburua. Gainerako bi faseak burutzeko, ondoren egingo dira, ahal bada, kanpoko finantzabideak eskuratuz.	Badago partida batean.
9.	290	72729335T	Bibliotekako liburu mailegatuak itzultzeko postontzia.	Ideia oso egokia iruditzen zaigu. Postontzi hori instalatzeko aukera aztertuko da.	Badago partida batean.
10.	290	72729335T	Auto elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzea.	Lehenago ere baloratu da gai hori udalean. Berriro ere ekin ahal zaio gaiari, nahiz eta eztabaida tekniko sakon samarra dagoen azpiegitura horiei buruz.	Ez dagokio.
11.	290	72729335T	Dorrea eta inguruak txukuntzea.	Dorrea San Martin eta Ugaldeko kaleen elkargunean dago, eta jabetza pribatua da. Bera eta bere ingurua konponduko dira sustatzaileak udalarekin sinatu berri duen hitzarmena garatzen duenean.	Ez dagokio.
12.	290	72729335T	Haurrei argiak oparitzea, institutura goizero joatean erabil dezatela sustatzeko.	Zalantzarik gabe, segurtasun-arazo bat da, eta ikastetxearekin batera baloratuko da modu koordinatuan egiteko aukera.	5.000 euro
13.	290	72729335T	Plazan eta institutuan bizikleta-aparkaleku gehiago jarri.	Murgiako zentroko bizikleta-aparkalekuen erabilera ez da gainezka egoten. Udala ikastetxearekin koordinatzen da eta gehiago eskatu eta behar dutenean, jarri egiten dira.	Badago partida batean.
14.	290	72729335T	Oinarekin irekitzen diren zabor-edukiontzia.	Hondakinak biltzeko eskumena zaborren partzuergoari dagokio. Edukiontzi irisgarriak zaharrak berritzen diren heinean eta irisgarritasun-premia espezifikoren bat dagoen heinean instalatzen ari dira.	Ez dagokio.
15.	290	72729335T	Karbono-dioxidoa neurtzeko aparatuak, bai musika-etxean, bai bibliotekan.	Arautegiak hala eskatzen duenean jarriko dira.	Ez dagokio.
16.	290	72729335T	Leiho kulunkariak musikaren etxean, daudenak ezin baitira ireki ere egin.	Oregi etxeko leihoak duela hiru urte berritu ziren eta egoera ezin hobean daude.	Ez dagokio.
17.	290	72729335T	Garbitu kale arrosa, grisa dirudi eta.	Ez dakigu zein den aipatutako kalea.	Ez dagokio.



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2021

BALIOESPENAK

	Erreg. Zbkia.	NORK?	ZER?	Balioespena	Ebazpena eta zenbatekoa
18.	290	72729335T	Bizikleta-erreia, igerilekueetatik basotxotik instituturaino, errepidetik bideraezina baita.	Bada bide bat Murgiako Ral basoan, bidegorria ez bada ere, erabat erabilgarria eta bizikletaz ibiltzeko modukoa.	Ez dagokio.
19.	291	72825890R	Domingo Sautu eta Otxondo kalearen artean dagoen ibilbide eta parkearen birgaitzea eta argitzea	Udalak asmoa izan du, lehenago, eremu hori berritzeko, baina erabaki zen itxoitea eskola-gune berria Pauldarren komentura ekarri eta abian jarri arte. Luminaria berriak jarri dira eta begiratuko da argi nahikoa dagoen.	Badago partida batean.
20.	312	JRC	Fauna, flora eta astronomiari buruzko proposamen kulturalak Aranzadirekin lankidetzan, gure ingurunea hobeto ezagutzeko eta gozatzeko helburuarekin	Planteatutako jarduerak kultura-jardueren agendan koka daitezke, ingurumen eta zientzien arloa sakonago landuz, beti ere, osasun-egoerak ezarritako neurriak bermatuz.	Badago partida batean.
21.	317	53980624S	Uraren kalitatea hobetzea. Fluoratu, hau da, fluorra gehitu.	Zuiako Udalak kudeatzen duen hornidura-sistemaren ur-kalitatea bermatuta dago, nahiz eta, noizbehinka, uheretasunak eragiten dituzten uhandiek eta ihesek eragina izan.	Ez dagokio.
22.	317	53980624S	Inausketa-hondarrak biltzeko guneak garbitzea eta egokitzea, erabilera sustatzeko.	Arabako Foru Aldundiak kudeatzen du inausketa-hondarrak biltzeko zerbitzu hori. Bilketa-eremu guztiak kexa-gune dira, gaizki erabiltzen direlako. Zerbitzu hau ez da behibetikoa; beraz, ingurunean esku hartzea edo lurperatzea alferrikako inbertsioa izan liteke. Udalak nahiago du herritarrak kontzientziaztea hondakin horiek nork bere lursailean kudea ditzan eta horretarako kanpaina bat egingo du.	2.000 euro.
23.	383	16050843V	Telekomunikazio sarearen garapena eta zuntzaren hedapena.	Zuntzaren hedapenak osatuta egon beharko luke udalerrri osoan. Hala ere, Arabako Foru Diputazioaren, Euskal Gobernuaren eta Espainiako gobernuaren lehiaketan enpresa esleipendunek ez dituzte helburu guztiak bete, eta hedapena osatu gabe utzi dute. Udala eta beste toki-erakunde batzuk hedapen hori behin eta berriz eskatzen ari dira, funtsezkoa baita edozein gizarteren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako eta, are gehiago, baserri-eremukoa bada.	Ez dagokio.